# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**2544**

85/2009 DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duena.

Eusko Jaurlaritza ohartzen da bere hezkuntza-sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratikorako hezkuntza sustatu behar duela. Ohartzen da, halaber, horretarako, justizia-, tolerantzia-, errespetu-, eta elkartasun-balioak oinarri hartuta hezi behar duela, besteak beste, eta ikasleek gaitasun pertsonalak eta harremanetarako gaitasunak garatzea lortu behar dutela, gai izan daitezen beren betebeharrak betetzeko eta herritar diren aldetik dituzten eskubideak gauzatzeko.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, 3.2 artikuluan, helburu hauek dituela zehazten du, besteak beste: pertsonalitatea askatasunez gara dadin bultzatzea eta ikasleak osoki heztea, bizikidetza demokratikoari bide ematen dioten balioetan oinarrituta. Ildo horri jarraiki, besteak beste gaitasun eta jarrera hauek sustatu behar direla zehazten du: kritikotasunez jokatzeko gaitasuna eta jarrera kritikoa, berdintasuna, justizia, parte hartzea, aniztasuna eta kontzientzia-askatasuna errespetatzea, elkartasuna, gizartearekiko ardura, tolerantzia, eta elkar errespetatzea. Horrez gain, giza eskubideen alde jokatzeko, bakerako, askatasunerako eta herrien artean lankidetza- nahiz elkartasun-ideiak sustatzeko heztea ere badu helburu, bai eta hezkidetzan oinarritutako heziketa izatea ere.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak oinarrizko printzipio hau zehazten du Hezkuntza Administrazioarentzat: hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko portaerei aurrea hartzea, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erabiltzen ikasiz, eta sexuen arteko errespetuan eta dibertsitatearekiko errespetuan oinarritutako bizikidetza-ereduak landuz.

175/2007 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoak, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna zehazten du, besteak beste. Dekretuak dioenez, gaitasun horrek dimentsio etikoa du eta, beraz, gizabanakoaren edozein jarrerak ez du dimentsio hori, baldin eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak biltzen dituen printzipio eta balio unibertsaletan edo antzekoetan oinarritzen ez bada.

Planteamenduak horiek izanik, Dekretu honek hauek hartzen ditu oinarrizko zein etengabeko hezkuntza integralerako ardatz erreferentzialtzat: elkarrekin bizitzen ikastea, elkarrekintza positiboak izatea, gataz-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**2544**

DECRETO 85/2009, de 21 de abril, por el que se crea el Observatorio de la Convivencia Escolar de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Gobierno Vasco es consciente de que su Sistema Educativo debe promover una educación para la convivencia y para una ciudadanía democrática, educando desde valores como la justicia, la tolerancia, el respeto, la solidaridad y que debe desarrollar en su alumnado las competencias tanto personales como relacionales necesarias para poder asumir los deberes y ejercer sus derechos de ciudadano o ciudadana.

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, en su artículo 3.2, establece, entre otros, que sus fines son impulsar el desarrollo en libertad de la personalidad y la formación integral de las alumnas y los alumnos, asentados en los valores que hacen posible la convivencia democrática, fomentando, entre otros, la capacidad y actitud crítica, la igualdad, la justicia, la participación, el respeto al pluralismo y a la libertad de conciencia, la solidaridad, la inquietud social, la tolerancia y el respeto mutuo, así como la defensa de los derechos humanos, la formación para la paz, la libertad y la promoción de las ideas de cooperación y de solidaridad entre los pueblos y asegurar el carácter coeducador de la enseñanza que se imparta.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres dispone que la Administración educativa establecerá como principio básico la prevención de conductas violentas en todos los niveles educativos, con el aprendizaje de métodos no violentos para la resolución de conflictos y de modelos de convivencia basados en el respeto a la igualdad de sexos y a la diversidad.

El Decreto 175/2007, de 16 de octubre, por el que se establece el currículo de la Educación Básica y se implanta en la Comunidad Autónoma del País Vasco contiene entre sus competencias básicas «la competencia social y ciudadana» y proclama que la dimensión ética de esta competencia supone entender que no toda posición personal tiene esta dimensión, si no está basada en el respeto a principios o valores universales como los que encierra la Declaración de los Derechos Humanos.

Desde estos planteamientos, este Decreto asume como ejes referenciales para la educación integral, tanto básica como permanente, el aprender a vivir juntos, a mantener interacciones positivas y a utilizar el diálogo

ka-egoeretan elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzea, aktiboki eta demokratikoki parte hartzea, lankidetzan aritzea eta taldean lan egitea, aniztasuna errespetatzea, elkartasun-jarrerak izatea, pertsona den aldetik garatzea (eta horretarako, norbera izatea, emozio negatiboak kontrolatzea, nork bere burua positiboki eta errealista izanez balioestea, autonomoa izatea eta norberaren erabakien erantzukizuna nork bere gain hartzea eta printzipio etikoen arabera jokatzea).

201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, hau ezartzen du ikastetxeen barne-bizitza antolatzeko bizikidetza-planei buruzko 5. artikuluan: portaeren prozedurak, hezkuntza-baliabideetako bat direnez, ikastetxeetako jardunean txertatu behar dira eta bizikidetza-planetan jaso; bestalde, Dekretuak xedatutakoari jarraiki, nork bere eskubideak gauzatzea eta besteen eskubideak errespetatzea funtsezko oinarriak direla jaso behar da bizikidetza-planean, bai berdinen, generoen eta kultura ezberdinekoen arteko bizikidetzarako, bai irakasleen, ikasleen eta irakasle ez diren langileen arteko harremanetarako. Bizikidetza-planean jaso behar dira gatazkak modu baketsuan konpontzera bideratutako prozedurak eta adiskidetzea nahiz ordaina edo zuzenketa lortzera bideratutakoak, bai eta bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko ildoak eta ikastetxean bizikidetzaren behatoki bat antolatzeko hartu beharreko neurriak ere.

Bizikidetza oinarri garrantzitsua da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako ez ezik, etorkizuneko herritarren prestakuntza integralerako ere. Horretan sakonduz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarduera-protokoloa idatzi zuen berdinkideen arteko tratu txarrak eta ikastetxe publikoetako langileekiko erasoak gertatzen direnerako, 2007ko maiatzean, Hezkuntzako Ikuskatzailetzaren bidez. Protokolo horren bidez, Sailak tresnak eman nahi izan dizkio hezkuntza-komunitateari, gure ikastetxeetan egon daitekeen indarkeriazko jokabiderik ez onartzeko, indarkeria hori oso leuna izanagatik ere.

2007ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak organismo aholku-emaile bat sortzeko premiazko eskaria egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Organismo hori hezkuntza-komunitateko sektore guztietako hainbat kidek osatu behar zuten, bai eta beste erakunde batzuetakoek eta, hala behar zenean, beste sail batzuetako arduradunek ere, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gidatu behar zuen. Organismo horrek tresna izan behar zuen EAEko ikastetxeetako bizikidetzari buruz ikuspegi orokorra ezartzeko, eta neurriak proposatu behar zituen bizikidetza hori hobetzeko.

Sail horrek bere hezkuntza-politikaren nondik norakoak zehazten dituzten printzipioen araberako marko orokor bat finkatu zuen, 2007-2010 aldirako

y la negociación en situaciones conflictivas, a participar de manera activa y democrática, a cooperar y trabajar en grupo y a respetar la diversidad, manteniendo actitudes solidarias, a desarrollarse como persona, siendo una misma, controlando las emociones negativas y valorándose de forma positiva y realista a sí misma, siendo autónoma y responsable de sus propias decisiones y actuando de acuerdo con los principios éticos.

El Decreto 201/2008 de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 5 referente a los planes de convivencia en la ordenación de la vida interna de los centros docentes, establece que los procedimientos de conductas deberán integrarse en la práctica de los centros docentes como un medio educativo más, recogido en los Planes de convivencia y que dichos Planes contemplarán el ejercicio de los derechos y el respeto a los derechos ajenos como base esencial de la convivencia entre iguales, entre géneros y en la interculturalidad así como de las relaciones entre el profesorado, el alumnado y el personal no docente. En él deberán recogerse procedimientos que tiendan a la resolución pacífica de los conflictos, a lograr la conciliación y la reparación, así como directrices para la asunción de compromisos educativos para la convivencia y medidas para la organización de un observatorio de la convivencia en el centro docente.

Abundando en la consideración de que la convivencia es una de las piedras angulares en la que se sustentan no sólo los procesos de enseñanza-aprendizaje sino, también, la formación integral de los futuros ciudadanos y ciudadanas, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación elabora, en mayo de 2007 y a través de la Inspección Educativa, el protocolo de actuación en los centros educativos ante el maltrato entre iguales y el de actuación en casos de agresión al personal de los centros educativos públicos a fin de dotar a la comunidad educativa de herramientas que le pudieran servir de ayuda con objeto de no tolerar, ni en su más mínima expresión, cualquier tipo de conducta violenta que pudiera existir en nuestros centros educativos.

El Parlamento Vasco, en marzo de 2007, insta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación a crear un organismo de carácter consultivo, con amplia participación de todos los sectores de la comunidad educativa, otras instituciones y, en su caso, presencia de otros departamentos, y liderado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, como un instrumento que permita establecer la visión global sobre la convivencia en los centros educativos de la CAPV, así como proponer las medidas para su mejora.

El Departamento entre sus líneas prioritarias 2007-2010 plantea un marco general que responde a los principios que define su política educativa y lo organiza en

lehentasunezko ardatzetan. Marko horrek hiru ardatz hauek ditu: guztientzako eskola, eskola hobea eta XXI. mendeko gizarteko eskola.

Eskola hobea ardatzean, Bizikidetzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako programa dago. Programa horri dagokion plana 2007ko irailaren 26an aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultura Batzordeari. Plan horrek hauxe zuen lehen helburua: ikastetxeetan Bizikidetzaren Behatokia sortzea eta Urteko Bizikidetza Plana egitea sustatzea, eta horrez gain, EAEko Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren sorrera sustatzea.

Horren arabera, Euskadiko Eskola Kontseilua entzun ondoren eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortu da. Kide anitzeko organo aholku-emailea da, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikita dago. Hezkuntza Sailburuordetzari dagokio Behatoki horri laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.

2.– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren jarduera-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeak hartuko ditu.

***2. artikulua.***– Helburuak.

Eskola Bizikidetzaren Behatokiak helburu hauek ditu, besteak beste:

a) Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta itunpekoetako eskola-bizikidetzaren ikerketa-, analisi-, balorazio- eta jarraipen-jarduerak gauzatzea.

b) Errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako bizikidetza sustatzea, giza harremanen berezko alderditzat har dadin gatazka, eta hezkuntza-prozesuaren zati izan dadin gatazka horiek sormenez eta ikuspegi etikoz eraldatzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ikuspegi orokorra zehaztea; eta horrez gain, bizikidetzari kalte egiten dioten arazoei aurre hartzeko jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.

***3. artikulua.***– Eginkizunak.

Eskola Bizikidetzaren Behatokiak eginkizun hauek ditu:

a) Ikastetxeetako bizikidetzari buruzko datuak sistematikoki bildu eta aztertzea, sexuaren arabera, ikastetxeetako bizikidetza-behatokien, Berritzeguneen, Hez-

tres ejes: Una escuela para todos y todas; una escuela mejor y una escuela en la sociedad del siglo XXI.

En su eje una escuela mejor se encuentra el programa para la Convivencia, la Paz y los Derechos Humanos, cuyo Plan se presenta a la Comisión Educación y Cultura del Parlamento Vasco el 26 de septiembre de 2007 y en el que figura como primer objetivo el de promover la creación del Observatorio de la Convivencia en el Centro y la elaboración del Plan de Convivencia Anual, así como promover la creación del Observatorio de Convivencia Escolar de la CAPV.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, oído el Consejo Escolar de Euskadi, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 21 de abril de 2009,

DISPONGO:

***Artículo 1***.– Objeto.

1.– Se crea el Observatorio de la Convivencia Escolar de la Comunidad Autónoma del País Vasco como un órgano colegiado de carácter consultivo y de asesoramiento, adscrito al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, correspondiendo a la Viceconsejería de Educación prestar la asistencia técnica y administrativa necesaria al mismo.

2.– El ámbito del Observatorio de la Convivencia Escolar será el de los centros educativos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Artículo 2***.– Finalidades.

El Observatorio de La Convivencia Escolar tiene entre sus fines los siguientes:

a) Desarrollar las actuaciones de investigación, análisis, valoración y seguimiento de la convivencia escolar en los centros públicos y privados concertados no universitarios.

b) Promover una convivencia basada en el respeto y el diálogo, en la que el conflicto se perciba inherente a las relaciones humanas y su transformación ética y creativa forme parte del proceso educativo.

c) Establecer una visión global sobre la convivencia en los centros educativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como proponer actuaciones de prevención y medidas para su mejora.

***Artículo 3***.– Funciones.

Corresponden al Observatorio de la Convivencia Escolar las siguientes funciones:

a) Recoger y analizar sistemáticamente y con la variable de sexo los datos sobre la convivencia en los centros educativos a través de los Observatorios de la Convi-

kuntzako Ikuskatzailetzaren eta Unibertsitatez kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen bidez.

b) Arrisku-faktoreak identifikatzea eta bizikidetza egokia sustatzeko ekintza eraginkorrak proposatzea; aldi berean, eskola-bizikidetzari laguntzen dioten hezkuntza-praktika egokien esperientzien berri ematea.

c) Eskola-bizikidetzara bideratutako hezkuntza-politiken segimendua egitea, eta bizikidetza hori hobetzeko behar diren jarduerak proposatzea.

d) Hezkuntza-komunitateko sektore guztiei zuzendutako jarduerak proposatzea, bizikidetzarako prestakuntzaren arloan.

e) Bizikidetza-planak, programak, araudiak eta horien aplikazioak aztertzea eta proposamenak egitea horiek guztiak hobetzeko, ikastetxeetako bizikidetza hobe dadin.

f) Adituen eta profesionalen arteko topaketak bultzatzea eta sustatzea, eremu honetako esperientziak, ikerketak eta lanak truka ditzaten.

g) Txostenak, analisiak eta azterketak egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskariz.

h) Azterketa espezifikoak egitea neska-mutilen arteko bizikidetza-ereduak nahiz harremanak eta horietan generoak duen eraginen berri gehiago jakiteko.

i) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako eskola-bizikidetzaren berri jakiteko eta hura ebaluatzeko aukera emango duen adierazle-sistema bat proposatzea.

j) Ikastetxeetako bizikidetza-egoerari buruzko urteko txostena egitea, eta hezkuntza-komunitateari jakitera ematea.

k) Bizikidetzarekin lotutako material eta baliabide didaktiko egokien lanketa eta antolamendua sustatzea.

l) Lankidetza sustatzea eskola-bizikidetzaren eremuan parte hartzen duten erakundeen, hezkuntza-eragileen eta eragile sozial guztien artean.

m) Antolamendu- eta jarduera-araudia egitea.

n) Unibertsitatez kanpoko ikastetxeen eremuko bizikidetza hobetzearekin zerikusia duten arlo guztietan informazioa jaso, aztertu eta zabaltzearekin eta jarduerak ikertu eta sustatzearekin lotutako beste edozein laguntza- eta aholkularitza-eginkizun.

o) Dekretu hau garatzean eman dakiokeen beste edozein eginkizun.

vencia de los propios centros educativos, Berritzegunes, Inspección Educativa y el Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa.

b) Identificar los factores de riesgo y proponer acciones efectivas para promover una buena convivencia, compartiendo a su vez experiencias de buenas prácticas educativas favorecedoras de la convivencia escolar.

c) Realizar el seguimiento de las políticas educativas orientadas a la convivencia escolar y proponer las actuaciones necesarias para su mejora.

d) Proponer actuaciones en materia de formación para la convivencia dirigidas a todos los sectores de la comunidad educativa.

e) Analizar y realizar propuestas de mejora sobre los planes de convivencia, programas, normativas y su aplicación, para la mejora de la convivencia en los centros educativos.

f) Fomentar y promover encuentros entre personas expertas y profesionales para facilitar el intercambio de experiencias, investigaciones y trabajos en esta materia.

g) Elaborar informes, análisis o estudios a solicitud del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

h) Elaborar estudios específicos que posibiliten un mejor conocimiento de los modelos de convivencia y relación entre chicos y chicas y la incidencia de género en los mismos.

i) Proponer un sistema de indicadores que permita conocer y evaluar la convivencia escolar en los centros educativos no universitarios.

j) Elaborar un informe anual sobre el estado de la convivencia en los centros educativos y darlo a conocer a la comunidad educativa.

k) Promover la elaboración y la ordenación de materiales y recursos didácticos adecuados, relacionados con la convivencia.

l) Promover la colaboración entre todas las instituciones y agentes educativos y sociales implicados en el ámbito de la convivencia escolar.

m) Elaborar el reglamento de Organización y Funcionamiento.

n) Cualquier otra función de apoyo y asesoramiento vinculada a la recogida, análisis, difusión de la información y la investigación y promoción de actuaciones en todas las materias relacionadas con la mejora de la convivencia en el ámbito de los centros educativos no universitarios.

o) Cualquier otra que se le encomiende en desarrollo del presente Decreto.

***4. artikulua.***– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren osaera eta funtzionamendua.

– Behatokiak Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bidez jardungo du.

4.1.– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren Osoko Bilkura.

A) Osaera.

– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren Osoko Bilkuraren osaeran, zainduko da partaide emakume eta gizonen arteko oreka, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, dioenaren arabera. Osoko bilkura horrek kide hauek izango ditu:

– Lehendakaria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua.

– Lehendakariordea: Hezkuntzako sailburuordea.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ikastetxeen zuzendaria.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

– Idazkaria, lehendakariak izendatua.

– Kideak:

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Bizikidetzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako hezkuntza-programaren arduraduna.

– Unibertsitatez kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (Isei/Ivei) harreman- eta bizikidetza-teknikari bat.

– Berritzeguneko zuzendari bat.

– Hezkuntzako ikuskari nagusia.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Kontseiluko lehendakaria.

– Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko ikasleen familien hiru ordezkari, irakaskuntza publikoko ikasleen guraso-elkarteen federazioak/ek proposatuta.

– Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikasleen hiru ordezkari, ikasle gehien ordezkatzen dituzten ikasle-elkarte eta ikasle-taldeek proposatuta.

– Hezkuntzan ordezkari gehien dituzten bost sindikatuetako ordezkari bana.

– Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako bi zuzendari; bata Haur Hezkuntzakoa edo Lehen Hezkuntzakoa, bi etapa horietako zuzendaritza-taldeen

***Artículo 4.***– Composición y funcionamiento del Observatorio de la Convivencia Escolar.

– El Observatorio actuará en Pleno y en Comisión Permanente.

4.1.– Pleno del Observatorio de la Convivencia Escolar.

A) Composición.

– En la composición del Pleno del Observatorio de la Convivencia Escolar se velará por la presencia equilibrada de mujeres y hombres de acuerdo a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres. Dicho Pleno estará integrado por los siguientes miembros:

– Presidente o Presidenta: El Consejero o Consejera de Educación; Universidades e Investigación.

– Vicepresidente o Vicepresidenta: El Viceconsejero o la Viceconsejera de Educación.

– El Director o la Directora de Centros Escolares del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– El Director o la Directora de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– Un Secretario o Secretaria, designado o designada por el Presidente o la Presidenta.

– Vocales:

– El o la responsable del Programa de Educación para la Convivencia, la Paz y los Derechos Humanos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– Un técnico o técnica en relaciones y convivencia del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa (Isei/Ivei)

– Un Director o Directora de Berritzegune.

– El Inspector o la Inspectora General de Educación.

– El Presidente o la Presidenta del Consejo Escolar de Euskadi.

– Tres representantes de las familias del alumnado de la enseñanza pública no universitaria, a propuesta de la federación/es de asociaciones de madres y padres de alumnos y alumnas de la enseñanza pública.

– Tres miembros en representación de las alumnas y alumnos de enseñanza no universitaria propuestos por asociaciones y agrupaciones de alumnos y alumnas representativas.

– Un o una representante por cada una de las 5 organizaciones sindicales más representativas en Educación.

– Dos directores o directoras de centros públicos no universitarios, uno o una de Educación Infantil y Primaria, a propuesta de las asociaciones de equipos

elkarteek proposatuta; bestea Bigarren Hezkuntzakoa, etapa horretako zuzendaritza-taldeen elkarteek proposatuta.

– Ordezkaritza handiena duten enpresa-erakundeen eta itunpeko irakaskuntzako titular esanguratsuenen bost ordezkari. Ordezkari horietako bat irakaskuntza-kooperatiben ordezkari izango da.

– Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) hiru ordezkari, herrialde bakoitzetik bat.

– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkari bat.

– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren ordezkari bat.

– Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru-aldundietako Gizarte Ongizate Sailen ordezkari bana.

– Eskola-bizikidetzaren eremuan ospe handia duten bi pertsona, Eskola Bizikidetzaren Behatokiko lehendakariak izendatuta.

– Hainbat gizarte-elkarte eta gizarte-talde ordezkatuko dituzten bi pertsona, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak proposatuta.

B) Funtzionamendua.

– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren Osoko Bilkurak urtean behin egingo du, gutxienez, ohiko bilkura.

– Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren bilkuretan parte hartu ahal izango dute lehendakariak eskatutako pertsona guztiek, aztertu beharreko gaietan duten ezagutza eta eskarmentua medio. Pertsona horiek hitza izango dute bilkuran, baina ez botorik.

– Beharrezkotzat jotzen denean, Eskola Bizikidetzaren Behatokiak hezkuntza-administrazioko zerbitzuetako datuak bildu ahal izango ditu, zuzendariak proposatuta, ikastetxeetako bizikidetzaren egoeraren berri jakiteko.

Era berean, beste erakunde edo instituzio batzuen lankidetza eskatu ahal izango du, bere funtzioak betetzeko eta ikastetxeetako bizikidetza-egoera zehazteko.

– Bizikidetzaren Behatokiaren urteko plana eta egindako ekintzen memoria egingo ditu.

4.2.– Batzorde Iraunkorra.

A) Osaera.

– Batzorde Iraunkorraren osaeran zaindu egingo da partaide emakume eta gizonen arteko oreka, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, dioenaren arabera. Hezkuntzako sailburuordea izango da Batzorde Iraunkorre-

directivos de estas etapas, y otro u otra de Educación Secundaria, a propuesta de las asociaciones de equipos directivos de dicha etapa.

– Cinco representantes de las organizaciones empresariales y titulares de la enseñanza concertada más representativas, uno o una de los cuales lo será en representación de las cooperativas de enseñanza, a propuesta de ésta.

– Tres representantes, uno por cada territorio, de la Asociación de Municipios Vascos (Eudel).

– Un o una representante del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

– Un o una representante del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

– Un representante del Departamento de Bienestar Social de cada una de las Diputaciones Forales de los territorios de la Comunidad Autónoma Vasca.

– Dos personas de reconocido prestigio en el ámbito de la convivencia escolar, designadas por el Presidente o la Presidenta del Observatorio de la Convivencia Escolar.

– Dos personas en representación de las diferentes asociaciones y colectivos sociales, a propuesta del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

B) Funcionamiento.

– El Pleno del Observatorio de la Convivencia Escolar se reunirá en sesión ordinaria, al menos, una vez al año.

– Podrán incorporarse a las sesiones del Observatorio de la Convivencia Escolar, cuantas personas sean convocadas por la presidencia en razón de su experiencia y conocimiento de las cuestiones a tratar, quienes actuarán con voz y sin voto.

– Cuando se estime necesario, a propuesta de la presidencia y a los efectos de conocimiento de la situación de la convivencia en los centros educativos, el Observatorio de la Convivencia Escolar podrá recabar datos a los distintos servicios de la administración educativa.

Asimismo, podrá solicitar la colaboración de otros organismos o instituciones para el desarrollo de sus funciones y para la determinación del estado de la convivencia en los centros educativos.

– Elaborará el plan anual del Observatorio de la Convivencia y memoria de las acciones llevadas a cabo.

4.2.– La Comisión Permanente.

A) Composición.

– En la composición de la Comisión Permanente se velará por la presencia equilibrada de mujeres y hombres de acuerdo a lo establecido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres. Dicha Comisión estará presidida por el Viceconsejero o la Vi-

ko buru, eta Osoko Bilkurako kide hauek izango dira batzordekide:

– Ikastetxeetako zuzendaria.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

– Idazkaria.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Bizikidetzarako, Bakerako eta Giza Eskubideetarako hezkuntza-programaren arduraduna.

– Unibertsitatez kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeko (Isei/Ivei) harreman- eta bizikidetza-teknikari bat.

– Irakaskuntza publikoko ikasleen gurasoen ordezkari bat, ikasleen gurasoen federazioek edo konfederazioek dagokien ordezkaritzaren arabera proposatuta.

– Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko bateko zuzendaria.

– Irakaskuntza publikoko ikasleen ordezkari bat, ikasleen konfederazioek, federazioek, elkarteek eta taldeek dagokien ordezkaritzaren arabera proposatuta.

– Hezkuntzan ordezkari gehien dituzten sindikatuetako bi ordezkari.

– Ordezkaritza handiena duten enpresa-erakundeen eta itunpeko irakaskuntzako titular esanguratsuenen bi ordezkari.

– Ospe handiko pertsona bat, Eskola Bizikidetzaren Behatokiko lehendakariak izendatuta.

B) Funtzionamendua.

– Batzorde Iraunkorrak hainbat zeregin beteko ditu: Behatokiak egoki funtzionatzeko behar duen laguntza teknikoa eta administratiboa emango dio Osoko Bilkurari, Osoko Bilkuran eztabaidatu beharreko lanak prestatuko ditu, hartutako neurrien ezarpena eta ondorioak ebaluatuko ditu, eta Osoko Bilkurak bere esku utzitako beste edozein laguntza- edo segimendu-eginkizun egingo ditu.

– Batzorde Iraunkorra hilean behin eta lehendakariak erabakitzen duen aldiro bilduko da.

4.3.– Euskara zein gaztelania erabili ahal izango dute Osoko Bilkurako, Batzorde Iraunkorreko eta osa litezkeen gainerako batzordeetako kideek.Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetako edozeinetan irakurri ahal izatea bermatuko da gai-zerrendetan, batzar-agirietan, egiaztagirietan eta beste edozein testu idatzitan.

4.4.– Behatokiak, dagozkion eginkizunak betetzean, ziurtatuko du izaera pertsonaleko datuak babestuta ego-

ceconsejera de Educación e integrada por los siguientes miembros del Pleno:

– El Director o la directora de Centros Escolares.

– El Director o la Directora de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– El Secretario o Secretaria.

– El o la responsable del Programa de Educación para la Convivencia, la Paz y los Derechos Humanos del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

– Un técnico o técnica en relaciones y convivencia del Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa (Isei/Ivei).

– Un o una representante de las familias de alumnos y alumnas de la enseñanza pública a propuesta de las Confederaciones o Federaciones de madres y padres de alumnos y alumnas, en proporción a su representatividad.

– Un director o una directora de centro público no universitario.

– Un o una representante del alumnado a propuesta de las Confederaciones o Federaciones, Asociaciones y Agrupaciones de alumnos y alumnas, en proporción a su representatividad.

– Dos representantes de entre las organizaciones sindicales más representativas en Educación.

– Dos representantes de las organizaciones empresariales y titulares de la enseñanza concertada más representativas.

– Una persona de reconocido prestigio nombrada por el Presidente o Presidenta del Observatorio de Convivencia Escolar.

B) Funcionamiento.

– La Comisión Permanente proporcionará al Pleno el soporte técnico y administrativo necesario para el funcionamiento del Observatorio, preparará los trabajos a debatir en el Pleno, evaluará el desarrollo de las medidas adoptadas y realizará cualquier otra función de apoyo y seguimiento que aquél le encomiende.

– La Comisión Permanente se reunirá cuando lo acuerde el o la Presidenta y al menos una vez al mes.

4.3.– Los componentes del Pleno, de la Comisión Permanente y de aquellas Comisiones que se pudieran formar podrán utilizar tanto el castellano como el euskera. Igualmente, en los ordenes del día, las actas, certificados y cualquier otro texto escrito se garantizará el uso de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.4.– El Observatorio en el ejercicio de sus funciones asegurará la debida protección de datos de carácter

tea, bi lege hauek ezarritakoari jarraiki: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, eta 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

***5. artikulua.***– Izendapena eta kargutik kentzea.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak izendatuko ditu, eta kargutik kendu, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kideak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kideek kide izateari utziko diote, horretarako arrazoi hauetakoren bat badago:

a) Agintaldia amaitzea.

b) Karguari uko egitea.

c) Kargutik kentzea.

d) Talderen baten ordezkari gisa dauden kideek ordezkaritza hori utzi edo galtzea.

e) Beren izendapena eragin zuten baldintzetako bat jada ez betetzea.

f) Kargu publikoak izateko gaitasunik gabe uztea.

g) Ezintasun iraunkorra izatea edo hiltzea.

3.– Agintaldiak lau urte iraungo du, eta beste lau urte luzatu ahal izango da.

***6. artikulua.***– Lehendakaria.

Eginkizun hauek ditu Eskola Bizikidetzaren Behatokiko lehendakariak:

1.– Behatokiaren ordezkari izatea, eta Osoko Bilkuran haren bozeramale izatea.

2.– Osoko Bilkuraren ohiko eta ezohiko bilkurak noiz egin erabakitzea, eta bilkura horietako gai-zerrendak zehaztea. Horretarako, aintzat hartuko ditu gainerako kideek behar besteko aurrerapenez egindako eskariak, hala dagokionean.

3.– Bilkuretan mahaiburu izatea, eta osoko bilkurak moderatzea.

4.– Dekretu honetan ezarritako lege-xedapenak betetzen direla ziurtatzea.

5.– Oniritzia ematea Osoko Bilkuren batzar-agiriei eta hartutako erabakien egiaztagiriei.

6.– Xedapen arauemaileek bere kargu utzitako funtzio guztiak eta lehendakariaren izaerari berez dagozkionak.

***7. artikulua***.– Lehendakariordea.

Hauek dira lehendakariordearen eginkizunak:

personal, conforme a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, y en sus disposiciones de desarrollo.

***Artículo 5***.– Nombramiento y cese.

1.– El nombramiento y cese de los miembros del Observatorio de la Convivencia Escolar en el País Vasco, será realizado por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

2.– Los miembros del Observatorio de la Convivencia Escolar en el País Vasco perderán su condición de tales por alguna de las siguientes causas:

a) Terminación de su mandato.

b) Renuncia.

c) Revocación.

d) Aquellos que lo sean en virtud de la representación que ostentan cuando cesen como representantes de sus colectivos.

e) Cuando dejen de concurrir cualesquiera otros requisitos que determinaron su designación.

f) Inhabilitación para el ejercicio de cargos públicos.

g) Incapacidad permanente o fallecimiento.

3.– La duración del mandato será de cuatro años, prorrogables por otros cuatro.

***Artículo 6***.– El Presidente o la Presidenta.

Corresponden al Presidente o Presidenta del Observatorio de la Convivencia Escolar las siguientes funciones:

1.– La representación del Observatorio, actuando como portavoz del mismo en las reuniones del Pleno.

2.– Determinar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias del Pleno, así como la fijación del orden del día, teniendo en cuenta en su caso, las peticiones formuladas con la suficiente antelación por los y las demás miembros.

3.– Presidir las sesiones y moderar el desarrollo de los plenos.

4.– Asegurar el cumplimiento de las disposiciones legales establecidas en el presente Decreto.

5.– Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del órgano.

6.– Cuantas funciones le sean encomendadas por disposición normativa o sean inherentes a su condición de Presidente o Presidenta.

***Artículo 7***.– El Vicepresidente o la Vicepresidenta.

Corresponden al Vicepresidente o Vicepresidenta las siguientes funciones:

1.– Lehendakaria ordezkatzea, kargua hutsik dagoenean, hura gaixorik dagoenean edo beste edozein ezintasun medio etorri ez denean.

2.– Batzorde Iraunkorraren bilkuretan mahaiburu izatea.

3.– Batzorde Iraunkorraren ohiko eta ezohiko bilkurak noiz egin erabakitzea, eta bilkura horietako gai-zerrendak zehaztea. Horretarako, aintzat hartuko ditu gainerako kideek behar besteko aurrerapenez egindako eskariak, hala dagokionean.

4.– Batzorde Iraunkorraren bilkuretan mahaiburu izatea eta bilkura horiek moderatzea.

5.-Batzorde Iraunkorraren batzar-agiriei eta hartutako erabakien egiaztagiriei oniritzia ematea.

6.– Lehendakariak bere esku uzten duen funtzio oro.

***8. artikulua.***– Idazkaria.

Idazkari-lanak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko funtzionario batek egingo ditu. Eginkizun hauek izango ditu:

1.– Bileretan parte hartzea. Hitza izango du, baina botorik ez.

2.– Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kideei Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretara eta eztabaidetara deitzea.

3.– Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kideen komunikazio-ekintzak jasotzea; hau da, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak eta jakin beharreko era guztietako kontuen idatziak.

4.– Batzar-agiriak egitea eta haietako edukia egiaztatzea, agiriak ordenatu eta zaintzea, eta hartutako erabakiei bide ematea.

5.– Argibide eskarien, irizpenen eta hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.

6.– Lehendakariak eskatzen dion funtzio oro.

***9. artikulua.***– Kideak.

Kideek eginkizun hauek dituzte:

1.– 72 orduko aurrerapenez deitutako bileretara joatea, eta eztabaidetan parte hartzea, beren iritzia emanez eta proposamenak eginez.

2.– Batzorde Iraunkorrari ohiko bilkuretako gai-zerrendan sartzeko gaiak proposatzea idazkariaren bidez, eta galderak eta eskariak egitea. Gai bat gai-zerrendan sartzeko eskaria kideen herenak egiten badu, gaia gai-zerrenda horretan sartuko da, zuzenean.

1.– Sustituir al Presidente o Presidenta en los casos de vacante, enfermedad, ausencia y otras causas de imposibilidad.

2.– Presidir la Comisión Permanente.

3.– Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias de la Comisión Permanente, así como la fijación del orden del día, teniendo en cuenta en su caso, las peticiones formuladas con la suficiente antelación por los y las demás miembros.

4.– Presidir las sesiones y moderar el desarrollo de las Comisiones Permanentes.

5.– Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del órgano.

6.– Cuantas funciones le sean delegadas por el Presidente o Presidenta.

***Artículo 8***.– El Secretario o Secretaria.

La secretaría será desempeñada por un funcionario o una funcionaria del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, correspondiéndole las siguientes funciones:

1.– Asistir a las reuniones con voz pero sin voto.

2.– Convocar a los miembros del Observatorio para la Convivencia Escolar a las reuniones y debates tanto de los Plenos como de las Comisiones Permanentes.

3.– Recibir los actos de comunicación de las y los miembros con el Observatorio para la Convivencia Escolar y, por tanto, las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquiera otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

4.– Levantar actas y certificar su contenido, ordenar y custodiar la documentación, dando curso a los acuerdos adoptados.

5.– Expedir certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos aprobados.

6.– Cuantas funciones le sean encomendadas por el Presidente o Presidenta.

***Artículo 9***.– Las y los Vocales.

Corresponden a las y los Vocales las siguientes funciones:

1.– Asistir a las reuniones convocadas con una antelación mínima de 72 horas y participar en los debates, exponiendo su opinión y formulando las propuestas que estimen convenientes.

2.– Proponer a la Comisión Permanente, a través de la Secretaria o Secretario, la inclusión de puntos en el orden del día de las sesiones ordinarias y formular ruegos y preguntas. Las propuestas de inclusión en el orden del día presentadas por un tercio de los miembros, suponen la inclusión del tema en el citado orden del día.

3.– Ordezkari diren aldetik dituzten eginkizunak betetzeko beharrezko informazioa lortzea.

4.– Beren kide izaerari berez dagozkion gainerako eginkizun guztiak.

***10. artikulua.***– Behatokiko kideen eskubideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kide izateak ez dakar kide izate horrengatik ordainsaria jasotzeko eskubiderik, baina haren jardueretan parte hartzeagatik dagokien ordain ekonomikoa jasoko dute (joan-etorriak eta bestelako dietak), indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

***11. artikulua***.– Behatokiko kideen betebeharrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokiko kideek nahitaez hartu behar dute parte azterketak egiteko lanetan eta txostenak nahiz irizpenak egiten.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

***Lehenengoa***.– 1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak onartuko du Eskola Bizikidetzaren Behatokiaren Antolamendu- eta Jarduera-araudia, Eskola Bizikidetzaren Behatokiak berak proposatuta, dekretu hau indarrean sartzen denetik sei hilabete bete aurretik. Edonola ere, dekretu honetan ezarritakoa beteko du.

2.– Antolamendu- eta jarduera-araudian, gai jakin batzuk lantzeko lantaldeak, batzordeak edo dekretu honetan zehaztutako organoez bestelako beste edozein organo sortzea aurreikusi ahal izango da, bai eta landu beharreko gaiaren arabera egokiak izan daitezkeen adituen lankidetza zehatza lortzea ere.

***Bigarrena.***– Dekretu hau argitaratzen denetik hiru hilabete igaro aurretik eratu beharko da Eskola Behatokiko Osoko Bilkura.

***Hirugarrena***.– Bermatu egingo da Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko oinarrizko 10/1982 Legea Osoko Bilkuran betetzen dela.

AZKEN XEDAPENAK.

***Lehenengoa***.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu honetan zehaztutakoa ezartzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

***Bigarrena***.– Prozedura-kontuetan eta dekretu honetan aurreikusten ez den beste edozein kontutan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren

3.– Obtener, en el desempeño de su representatividad, la información precisa para cumplir las funciones asignadas.

4.– Cuantas otras funciones sean inherentes a su condición.

***Artículo 10***.– Derechos de los miembros del Observatorio.

La condición de miembro del Observatorio para la Convivencia Escolar en el País Vasco no comporta el derecho a percibir una retribución por tal concepto, si bien obtendrán las compensaciones económicas a las que tengan derecho por su participación en las actividades del mismo, de conformidad con la normativa vigente, a efectos de desplazamiento y dietas.

***Artículo 11***.– Obligaciones de los miembros del Observatorio.

Las y los integrantes del Observatorio para la Convivencia Escolar en el País Vasco están obligados a participar en la realización de estudios y en la emisión de informes y dictámenes.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– 1.– El reglamento de organización y funcionamiento del Observatorio de la Convivencia Escolar será aprobado por el Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, a propuesta del propio Observatorio de la Convivencia Escolar, en un plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor del Decreto. En cualquier caso respetará lo establecido en el presente Decreto.

2.– En el reglamento de organización y funcionamiento se podrá prever la creación de grupos de trabajo para temas específicos, de comisiones o de cualquier otro órgano distinto a los establecidos en el presente Decreto, así como la de recabar la puntual colaboración de aquellos expertos que en función de los temas a tratar se estime conveniente.

***Segunda***.– El pleno del Observatorio Escolar se constituirá en el plazo máximo de tres meses desde la publicación del presente Decreto.

***Tercera***.– Se garantizará el cumplimiento de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera en el seno de este órgano.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Se faculta al Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación a dictar cuantas disposiciones resulten precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

***Segunda***.– En cuestiones de procedimiento y en todo lo no previsto en el presente Decreto, será de aplicación lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídi-

26koak, II. tituluko II. kapituluan zehaztutakoa ezarriko da, kide anitzeko organoei dagokienez.

***Hirugarrena***.– Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko apirilaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANDOS.

co de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, por lo que se refiere a órganos colegiados.

***Tercera***.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2009.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.